

KEZKAK

Ezin ezkondu ziren. Erri artako printzipea eta oski-garbitzallearen alabaren artuemanak ezin zitekeen aurretirago joan.

Erri artako jende guztiak zioenez, biak ziren zein baiñon zein egokiagoak. Galatia, mutil jator eta prestua, eta oski-garbitzallearen seigarren alaba bertiz, neskatx eder eta guztiz lirainia.

Baiñan leen esan degunez amorio ezinik ziren. Ori pena!

Orduantxe ludi guztiari begietatik malkoak ixurtzeari eman zion.

Bitartean, alabak zion aitari: Zergaitik?, zergaitik?, zergaitik ori aita?

Eta printzipeak bere amari: Zergaitik? Zergaitik?, zergaitik ori ama?

Berealaxe etorri zitzairen, gazteen bizkar gainea, odoi tartetik oiarzun bat bezela, erantzun minkatza: «Odol arazoagaitik, odol arazoagaitik, odol arazoagaitik...»

Erriak orduan eta negar geiago egiten zuen.

Egunak pasa ziren, ez nolana ere pasa, eta igaro bear zuena igaro zan. Bi gazteak begiak irekiakin, elkar begira, gurputz otz otzekin arkitu zituzten kanpantorrean. Ilda zegozten. Ori pena!

Beren gurasoek galde eta galde egiten ziren eure burueri, ze arraitan ari ziren biak ain leku gotarrian. Baiñan skuletan etzuten erantunik jaso izan. Ori izan zen gurasoentzako zigorrik gogorrenetako. Ori eta neskamiñen begirada zorrotzak.

Orain ludiak ezin du ezergaitik negarrez ari? Ori pena! Zertaz ibilli bear du orain ludiak? Zer egin bear du orain ludiak? Ara or agintarien kezka.

Jaioko ote da beste Romeo eta Julieta berriren bat?

Ez ixaropenik galdu.

Arri batek gutxiago ematen du.

Eta bitartean badugu zertan denbora igaro. Naiz eta denbora ori alferkerian igaro, ez eduki kezkarik, orregaitik etzera gosetik ilko-ta.

Ramon ZAPIRAIN

Euskera gaixoa

Lengo igandean iru lagun urten giñan Bilbotik, Arrateko Urko ta Kalamoa mendietara igotzeko ta bide batez argazki batzuk atartzeko asmoz.

Eguraldi txarra izan zan eta gure poza pozura, goiz osoan euria eten barik, eta lañoa baño ez zan agiri. Eguraldiaren zitalkeria, ikustean legorretara abiatzeko erabakia artu genduan. Alako baten, egurra gordetzeko eskepe batera eltzean jesarri egin giñan amarretakoa artzeko. Baiña eskepe-ondoan aterpe bat egoan, eta aterpe onen jaun batek egur-billa elduaz aterpe-barrura joateko esan euskun.

Esan eta egin, ara joan giñan eta bai pozik ere. An sartzean eureta-

ERRIA

riko beste bat izan ba'giñan lez artu ginduezan, egia esateko orretarako eibartar bezelakoak eztodaz aurkitu.

Bonbilla bat ardao atera ondo-
ren, danok mai sundi baten ingu-

ruan jesarri giñan, amarretakoa artzen.

Aterpearen izena Gorla zan, Bergara-ondoan dagon mendin baten izena da, amabost adiskide artean daukde.

Igande ta jaiero an egoten dira, mai inguruan eta berogailluaren ondoan, otza danean, gogaldi onez emoteko astia.

Esan eukeen eguraldi txarra danean ogi-anpurak izten dabezala, leioan, txoriak jan daien.

Baiña euskerari buruz ere berba egin genduan eta ona emen, euregandik, aspaldian erabilitako itzak ikasi genduzan:

Barautza	= sierra de mano
Epalki	= macho (de roscar)
Ardatza	= destornillador
Maritilla	= botijo
Txantxilla	= cincel
Buri-zabala	= llar
Latza (latzu)	= marmita
Topin	= muñeca
Kopiña	= broca

Zer deritsozue? Nire ustez onelako berbok bitu egin bear geunke, erderara jo barik, gure izkuntza mailtea sendotu dedin.

ZANGRONIZ

Nere erriko Ama Birjiña'ri

Abestu dagizudala, eskatzen didate, nere Ama Birjiñaxoa, nere erriko Ama Birjiña. Baiña ez didate esaten, nola egin nezaken. Ego gabe eltzeko Donokil'ra. Nik, gogo osoakiñ, Zu maitatzen dakidan onek, nik, Zure izena, ala neure amarena, lenengo zeñi ikasi nuan ez dakidan onek, Zurea, Salbe'akaz neure amak-erakutzia, edo berea, aini santua, Zurea'kiñ egiña...

Eziñ nezaizeu ezer esan, danak izketan ari diranean.

Nere maitetasuna, Ama!

Beri, ixilla izan da.

Iñoiz ez, itz-jarioa.

Lenengo eskatu zidatenean Zuri abestuzeko eta bertsuetan egiteko, nere asmao iges-egitea izan zan.

Ni ez bai naz gauza, ori egiteko!!

Baiña oldoztu detanean, gaur, Zumaya'ko itxas-gizon danak Zeuri «Agur Erregiña» biotzez otoitzean ari dira-

ERRIA

la, soldadutzan diran Zumaya'ko mutil danak «Arritokietako Ama maita, artu gaitzazu Zeure babespean anitz bider esango dizutela, eta ga-

xotegi ta beste orrelako leku tristetan dauden Zumaya'ko seme alabak Zure laguntza eske deadarika daukazula, pensatu dutanean, eta inurime-neko begiakaz ikusi dutanean Zumaya'ko erri osoa Zu'gana dijosala aldagora Andre Maria'ko eleizara, eta Zure eleizako aldapan, otoitza ta mirria denbora berean dabilzala, otoitza (eskaria) gora, Zugana, eta mirria (erantzuna) beera, gugana, neuk ere uskeri bat baiño ez bada bere, Zeuri zuzendu nai dizut, neure errotaren izenean, eta diñotsut «Arritokietako Ama! zabaldu ezazu zure estalkia, eta artu bere aspian zumayar danok, zeure ume danok, zaitu gaitzazu beti, eta

«Danok Zerura jua gaitezen

Ama! egizu»

AZPEITIA'TAR JULENE

Eskauriatza'ren alarguna

Oarra: Idatzi onetan "Nere erriko Ama Birjiñari" etik asita ta "Ni ez bai naz gauza ori egiteko"-raño, Don José M.º Gabriel y Galán Salamanka'tar maixu jakintsu, Jaungoiko zule eta olerkari fin batena da. Nik, erderatik euskerara itzultzea besterik ez det egin. Gabriel y Galán bizi izan ba'liz, ez zidan ukatuko bere lan a euskerara biurtzea, neuk ere, maixu baten moduan, eskatuko niolako berari maixu bezela.

Baserri txiki nora?

Leiotik kanpora lorari begira belar zelai eta aurreko mendira zeru urdin ta beltza gora begira eguzkia eskutatzen bere azken dizdira.

Basarri txiki etorri zan argira zarrak emen gaude gazteak jua dira. Ilunaren igesi egun senti begira mendi gaillurretik beeko ibaira.

Dirua ugaria da len dadukanentzat ogei ezkeintzearen ogetabi berentzat. Denboraren truke gure lanak arentzat allegatzen ez bagera moirrontza guretaz.

Au ikusita gazteak or dabilza larri nekeak utzi eta diruan egarri. Dirua ugariago halioa urri porru patata eske ama baserriari.

Olan lan egiteko makinetan prisa or dabil ikasten bigarren moirrontza piro asko lanean ordu zaintze latza nagusi bat bakarrik dago aberatsa.

Gizona ez da bizi bakarrik ogiak baino ere bizi da Jaunaren itzak. Maite gaitzen alkar berdintasunakin kale ta basarri danok alkarrekin.

Jose Berritxu